


The background of the entire image is a solid blue color. Overlaid on this background are numerous thick, white, wavy lines that resemble stylized flames or smoke. These lines are of varying thickness and curve in different directions, creating a dynamic and textured effect. The text is centered within the image, with the main title in a large, bold, white, rounded font and the year below it in a similar but slightly smaller font.

DONOSTIAKO ASTE NAGUSIA 2026

 IRUTXULOKO
HITZA

GROSEKO INDARRA SURF^{ESKOLA} TALDEA

IKASI, GOZATU
BIZI, ELKARBANATU

📞 695-75 44 71

🌐 grosekoindarra.com



Uda bizi,
euskara eroso ikasten

Ondo pasa
jaietan!

aek
euskara praktikoa



Victoria Zarco, Gasteizko AEEKo ikaslea.



EUSKALTEGIAK

Ikastaro trinkoak

Etxe ondoan

Euskara ikasteko
Azterketak prestatzeko



FAMILIA BARNETEGIAK

Euskara ikasteko
Seme-alabekin
euskaraz aritzeko



2 ASTEKO BARNETEGIAK

Euskara-eskolak
Euskaraz bizitzeko
Azterketak prestatzeko
Udako Biltaria



ONLINE IKASTAROAK

B1-B2-C1-C2
Azterketak prestatzeko



PRAKTIKATU

Udan ere,
mintzataldeak
marxan; hurbildu
zure euskaltegia

UDAKO EUSKARA-IKASTAROAK



Informazio gehiago



673 200 100 / 946 464 000
aek@aek.eus

www.aek.eus

Bizi ezazu zure Aste Nagusia

Donostiako auzo eta herrietako jaiekin ez duzu nahikoa izan, eta, konturatu zarenerako, iritsi da Aste Nagusia. Bada, badakizu, hartu zure zapia eta edalontzia; deitu lagunei, familiari, bikotekideari edo nahi duzunari; atera kalera eta gozatu; bizi ezazu zure Aste Nagusia.

Abordatu hiria, gozatu su artifizialez, dantzatu kontzertuetan, luzatu parrandak, kirola egin, manifestatu, aldarrikatu, jolastu, kozinatu, txosnako txanda bat egin... finean, bizi ezazu zure Aste Nagusia.

Lanean bazaude ere, izan zerbitzari, kale garbitzaile, zaintzaile, sukaldari, jaien antolatzaile edo argazkilari, zuk ere bizi ezazu zure Aste Nagusia. Eta, teknikarien moduan, greban bazaude, zure eskubideak aldarrikatuz bizi ezazu Aste Nagusia.

Ez baduzu jaietan parte hartu nahi edo, nahi bai, baina ezin baduzu, zuk ere bizi dezakezu zure Aste Nagusia, IRUTXULOKO HITZAREN bidez jaien egunez egunkoa jarraituz, albiste, elkarrikketa, argazki eta bideoen bitartez.

Hasieran esaten genuen moduan, bizi ezazu zure Aste Nagusia, eta, batez ere, utzi ingurukoak beraiena bizitzen.

Ondo pasatu! Kaleetan ikusiko dugu elkar!



 Ametzagaña, 19, behe, 20012 Donostia

 943-46 72 36

 donostia@hitza.eus

Argitalpen data: 2026ko abuztua

Lege Gordailua: SS-226-05

Testuak: Erredakzioa

Argazkiak: Erredakzioa

Diseinua: Oier Arribas Ciria

Publizitatea: Aizpea Aizpurua Arroio
aizpurua@hitza.eus · 688-60 71 08

**Irutxulo
.hitza
.eus**



PIRATAK



Aitor Egaña Donostiako Piratetako komunikazio arduraduna eta Amets Ibero Bagera elkarteko koordinatzailea.

Matti Bagera izango da: euskararen aldeko aitortza, Aste Nagusi Piratan

35 urte bete ditu Donostiako Bagera Euskaltzaleen Elkarteak; 35 urte euskararen aldeko lan nekazina egiten. Urteurrenaren bueltan eta Bageraren balioekin bat eginez, Donostiako Piratet elkarre euskaltzalea omenduko dute Aste Nagusian, Bagera izango baita Matti pertsonaia. Horrela, Aste Nagusira begira jarri gara, Amets Ibero Bagerako koordinatzailearekin eta Aitor Egaña Donostiako Piraten komunikazio arduradunarekin batera.

Donostiako euskararen egoerak, azken urteotan, kontraesan nabarmena erakusten du. Ezagutza etengabe hazi bada ere, erabilerak beherranzko joera hartu du. Hiriaren eraldaketak, turistifikazioak, etxebizitzaren garestitzeak eta horren ondorioz donostiar askok hiria utzi behar izateak euskaraz bizitzeko espazioak estutzen ari dira. Amets Ibero Bagerako koordinatzailearen hitzetan, «lehen alpagatak saltzen ziren tokian, orain *Lokopolo* edo *Basque cheese cake* aurkitzen ditugu», eta horrek euskaraz egitea gero eta gehiago hautu kontziente bihurtzen du.

Testuinguru horretan omen-

📷 June Agirre Ansa



Galparsoro Okindegia



OGIAREN
egia

Kale Nagusia, 6
Donostia
@galparsokindegia



Ezkila kapitaina, 2025eko Aste Nagusi Piratako txupinazoa botatzen. JOSEBA PARRON SAN SEBASTIAN

Bagera eta Donostiako Piratak jatorri bereko bi eragile dira: herri ekimenetik sortuak

duko dute Donostiako Piratek Bagera Euskaltzaleen Elkartea; duela 35 urte Bagera, Donostian euskararen erabilera sustatzeko herri ekimena. Harrezkero, hiri-ko euskalgintzaren erreferente bihurtu da, hizkuntza aktibazioa, transmisioa eta erabilera sustatzeko ekimen ugari martxan jarritz. Besteak beste, Mintzlaguna, Auzoko, IRUTXULOLO

HITZA eta Euskaraldia sortu edo sustatu ditu.

Euskaldunon erronkek, ordea, ez dute etenik: «Oldarraldia-ren erdian gaude eta erantzun sendo bat landu behar da», dio Iberok. Hala ere, baikortasunerako arrazoiak ere badaudela nabarmendu du: «Gero eta auzo gehiagotan euskara batzordeak sortzen ari dira eta hori euskarak bizirik jarraitzen duenaren seinale da».

Euskararentzat arnasgune

Bagera eta Donostiako Piratak jatorri bereko bi eragile dira: herri ekimenetik sortuak, euskara ardatz dutenak eta Donostian eus-

karaz bizitzeko eredu baten alde lanean dihardutenak. Horregatik, elkarren lana osagarritzat dute. Iberoren ustez, «euskaraz erlazionatzeko espazioa eta euskararentzat arnasgune garrantzitsu bat eskaintzen dute Piratek». Izan ere, jai herrikoiak hizkuntza ohiturak aldatzeko eta euskararen erabilerak naturaltasunez sustatzeko aukera paregabea direla defendatzen du: «Abuztuaren 8tik 15era, jaiak euskaraz bizitzeko aukera paregabea eskaintzen da».

Bi eragileek argi dute euskararen etorkizuna ez dela jaietara mugatzen. Bageraren ustez, gazteek zeresan handia badute ere, euskararen etorkizunaren ardura



TAMAYO

DONOSTIA 1914

papeleriatamayo.com | Legazpi kalea, 4

ezin da haien gain soilik utzi. Herri mugimenduek, berriz, ezinbesteko zeregina dute, euskara euren jardunaren erdigunean kokatuz eta hortik eraginez: «Herri mugimenduen erdian euskara jarri, eta hortik eragin behar da». Piratek ere ikuspegi hori partekatzen dute. Aitor Egañak, Donostiako Piraten komunikazio arduradunak, azaldu duenez, «garrantzitsua da euskaraz jarduteko espazioak sortzea, jaiak euskaraz izan behar baitira». Horregatik, beren jardun osoa euskaraz egiten dute, eta azken urteotan Bagerarekin batera lehen hitza euskaraz egiteko kanpainak ere abiatu dituzte.

Matti: aitortza eta konpromisoa

Urtero, Donostiako Piratek Matti izendatzen dute hiriko eragile bat omentzeko eta haren lana ikusgarri egiteko. «Matti gure mugimenduan sortu genuen figura bat da, Ezkila kapitainaren laguntzailea, eta urtero eragile bati omenaldi moduan eskaintzen diogu», azaldu



du Egañak. Aurten, hautua argia izan da: «Bagerak 35 urte bete berri ditu eta euskararen alde egiten duen lanagatik, batez ere oldarraldiaren testuinguruan, merezitako aitortza dela iruditu zitzaigun».

Bageran ilusioz eta harrotasunez jaso zuten izendapena: «Ilusioa eta ohorea sentitu genituen. Donostian sortutako herri ekimen batentzat aitortza handia da», dio Iberok. Bere ustez, izendapenak «euskararen aldeko eguneroko lana balioan jartzen du eta hizkuntza-aren inguruko mezua indartzen du».

Matti izanik, Bagerak mezu argia zabaldu nahi du Aste Nagusian: «Euskara balioan jarri behar dugu, kalean»

Matti izanik, Bagerak mezu argia zabaldu nahi du Aste Nagusian: «Euskara balioan jarri behar dugu, kalean, lanean eta etxean euskaraz bizi eta erlazionatu».

Piratek ere ilusio bereziz bizi



**IPURU S. L.
ERAIKUNTZAK**

**Mundaiz bidea, 10
2. solairua - 24. bulegoa
Tel.: 943-42 41 21
20012 DONOSTIA
www.ipuru.com**



dute elkarlana. «Badakigu Bagerak mugimendua gertutik bizi duela eta sorpresa batzuk ere prestatu ditugu elkarrekin», aurreratu du Egañak. Txupinazoa, aboratzat eta aste osoko ekitaldiak elkarlan hori ikusarazteko baliatuko dituzte.

Jai herrikoiei eta euskaldunen aldeko ereduak

Donostiako Piratak argi dute zein baliok gidatzen duten euren jai ereduak. «Jai parekide, euskaldun, parte hartzaile eta transfeministak gara», adierazi du Egañak. Horiez gain, autogestioa, herri gintza eta denontzako espazio seguruak sortzea dituzte oinarri. Piraten kasuan, euskararen presentzia ez da neurri edo kanpaina zehatz baten emaitza, eguneroko jardunaren oinarria baizik. «Gure jardun guztia euskaraz da: komunikazioa, egitaraua eta gure arteko harremanak ere bai», gehitu du Egañak.

Bageraren ustez, Aste Nagusi Piratak ekarpen berezia egiten dio Donostiari, hiriaren gaur egungo eredu turistifikatuaren

aurrean, alternatiba herrikoiei eta komunitarioa eskaintzen delako. «Masifikazioaren aurrean herritarrentzako gune parte-hartzaile eta euskaldunak eskaintzen dituzte», azaldu du Iberok. Gainera, tokiko kultura sustatzen dute, eta donostiarrentzat sortutako jai komunitarioa eraikitzen dute.

Helburua argia da: espazio euskaldun, herrikoiei eta askeak sendotzeaz gain, hiriko beste txokoetara ere zabaltzea

Erronka: espazioak irabazten jarraitzea

Bai Bagerak bai Piratek, argi dute datozen urteetako erronka nagusia ez dela, soilik, euskararen presentzia mantentzea, erabilerara indartzea baizik. Bagerak administrazioan, hezkuntzan,

enpresetan eta kalean euskararen erabilera bermatzea ezinbesteko-tzat jotzen du, baita gazteentzat euskaraz bizitzea errazago egingo duten espazio eta baliabideak sortzea ere. «Harrera herria izan behar dugu, eta harrera horren parte gure hizkuntza ere izan behar da», nabarmendu du Iberok.

Piraten erronka, berriz, jai herrikoia gero eta hiri turistifikatuago batean bizirik mantentzea da. «Erronka handiena gaur egungo hiri eredu kapitalista eta turistifikatzaileari aurre egitea da», dio Egañak. Horregatik aukeratu dute aurtengo leloa: *Bota sareak barkutik hirira*.

Helburua argia da: orain arte sortutako espazio euskaldun, herrikoiei eta askeak sendotzeaz gain, hiriko beste txokoetara ere zabaltzea. Izan ere, Bagera eta Piratak bat datoz ideia batean: euskararen etorkizuna ez da soilik hizkuntzaren etorkizuna, herri bizi bat izango duen Donostia komunitarioaren etorkizuna ere bada. ●

Triku Harri
taberna & jatetxea



Matia Kalea 35, Antigua
www.trikuharrijatetxea.com

Deskargatu
AVIApocket
Club AVIAren aplikazioa
eta eskuratu **5€**



LARRAMENDI, S.L.
GASOLINDEGIA

Nafarroa hiribidea, 5 · GROS - 943-27 92 11 www.avialarramendi.com

**E
N
B
A
T
A**



Ondo pasa Aste Nagusi Piratan!

Kale Nagusia, 14 - DONOSTIA
943424797 - 609314962
enbatadenda@gmail.com
www.enbata.eus





ALTZARIAK
BARNE DISEINUA
www.apal.eus

Ametzagaña 7 · Donostia
943 320400

TABAKALERA

ABUZTUA

TABAKALERA



MUSIKA

06 Abuztua → 29 Azaroa

**THE MUSIC /
IS THE BODY
/ IS THE WORLD**
DEBRIS STEVENSON

Soinu instalazioa. Scala.

**06
DEBRIS
STEVENSON**

Performancea

**07
ZOMOZORROAK**

(+ 8 urte) Haurren
Hamabostaldia

**12
HANNAH SILVA
COMPOSING
SPEECH**

Hitzaldi performatiboa

**10 - 14 - 16
MUSIKA
GARAIKIDEKO
ZIKLOA**

87. MUSIKA
HAMABOSTALDIA

Sigma Project
Quatuor Béla
Dúo Cassadó

DANTZA

**11 - 13 - 14
TABAKALERA
DANTZAN**

87. MUSIKA
HAMABOSTALDIA

Ion Munduate "Hafuura"
Paula Quintana
"Atlas de anatomía"
Lorena Nogal "PICASSA"

Kontsultatu
programazio
guztia



Piraten egitaraua



LARUNBATA 8

- 14:00**
Kofradien bazkariak.
- 17:00**
Pretxupinazioa Pasai txarangarekin, Parte Zaharrean.
- 19:00**
Ezkila eta Mattiri ongietorria, Flamenkan.
- 19:30**
Txupinazoa, Flamenkan.
- 23:05**
Kontzertua, Flamenkan:
Lehian erromeria.
Kontzertua, Trinitate plazan:
Zaunka.

IGANDEA 9

- 10:00**
Artisau Azoka, Lastan eta Flamenkan.
- 12:00**
Ugullera igoera, Portaletatik.
- 13:00**
Jolas bihurriak Ugull mendian
- 14:00**
Traganarruen Estandea Abordatu eguneko bazkaria eta jolasak, Bernart Etxepare plazan. Tiketak: Kai, Eraztun eta Zulo Zahar tabernetan salgai.
- 14:00**
Bazkaria (etxeko jana), Urgullen.

- 15:00**
Erroneria Aliritzi taldearekin, Urgullen.
- 16:00**
Herri kirolak, Bernart Etxepare plazan.
- 17:00**
Estandea abordatu!, Bernart Etxepare plazan.
- 19:00**
Kontzertuak, Flamenkan:
19:00 - Anari.
21:00 - Altxa Lili kabareta.
23:30 - Ezezez.
- 20:00**
Afariak, Trinitate plazan.
- 23:05**
Kontzertua, Trinitate plazan:
Peppermint Sextet.

Tel.: 943-27 97 96

70
KATA TABERNA
1956 - 2026
EGIA

Ondo pasa jaiak!



ASTELEHENA 10

09:30

Baltsen muntaketa, kaian.

14:00

Bazkari herrikoia, Flamenkan.

Tiketak: Trikuharri, Marruma eta Herria tabernetan salgai.

17:00

Abordatzera!

Izen ematea: *Donostiakopiratak.eus*

18:00

Tritona DJ-a, Kontxatik Flamenkara.

20:00

Afariak, Trinitate plazan.

20:00

Kontzertuak, Flamenkan:

20:00 - Tapia eta Leturia.

23:05 - Xiberoots.

01:00 - Brava.

23:05

Kontzertua, Trinitate plazan: Lappa.



ASTEARTEA 11

10:30

Erraldoi eta buruhandiak, Nafarroa Beherea plazatik.

Señora gosaria, Lastan.

12:00

Deliriotada: bermut dastaketa eta Delirio Segismundoren ikuskizuna, Flamenkan.

Trikipoteoa, Grosen.

14:30

Bazkari disidentea eta The Pingo, Lastan.

Tiketak: Plateron eta Ensantxen salgai.

14:30

Gros Pirata bazkaria, Txofren.

Tiketak: Natxon eta Marruman.

15:00

Mus txapelketa, Trinitate plazan.

17:30

Hamarru elektrotzaranga, Txofretik.

18:30

Kalejira aldarrikatzaile transfeminista, Lastatik hasita.

20:00

Afariak, Trinitate plazan.

BIKABI
ARTEKARITZA, S.L.
CORREDURIA DE SEGUROS

Ondo pasa jaiak!

GUSTATUKO AL LITZAIZUKE ZURE ASEGURUEN BALDINTZAK AZTERTZEA?

DONOSTIA: 943-47 47 19
BILBO: 944-23 96 34
email: bikabi@bikabi.eus



20:00

Kontzertuak, Flamenkan:
20:00 - Svetlana.
23:00 - AimarZ.
01:00 - Siwanaba.

23:05

Kontzertua, Trinitate plazan:
Andoni Ollokiegi eta Olloki.

ASTEAZKENA 12

12:00

Kantujira, Portaletatik.

14:30

Piraten bazkaria, Kaimingaintxon.
Tiketak: Belea, Kixkurra, Zulo Zahar eta
Platero tabernetan.

16:30

Joselontxos txaranga,
Flamenkatik.

20:00

Afariak, Trinitate plazan.

20:30

Play-back lehiaketa, Lastan.
Izen ematea: kalepoza@gmail.com.

23:05

Kontzertuak, Flamenkan:
23:05 - Bele.
01:00 - Neomak.

Kontzertua, Trinitate plazan:
Xabier Badiola.

OSTEGUNA 13

12:00

Jolas Bihurriak Eskifaiarekin, kaian eta
Parte Zaharrean.

14:00

Haurren bazkari herrikoia, Flamenkan.

16:00

Abordatze txikia, kaian.

17:00

Mutxikoak, Flamenkan.
Mojito lehiaketa, Lastan.

18:30

Jaranero gerri mugi: Zumbonak, Lastan.

19:30

Miau DJ-a, Lastan.

20:00

Afariak, Trinitate plazan.

21:00

Ganbara ostatua.

23:05

Kontzertuak, Flamenkan:
23:05 Sua.
01:00 Ezpalak.
Kubarekin elkartasun saioa. Poesia eta
Silvio Rodriguezen abestiak (Dayron Cor-
vea eta Aner Jauregi), Trinitate plazan.

OSTIRALA 14

14:30

Gazte bazkaria, Lastan (etxetik ekarri eta
partekatu).

16:00

Kuadrilla jolasak, Lastan.

18:30

Kalefaia DJ tematikoa, Lastan.

19:20

Danborrada Pirata, Flamenkatik hasita.




LAIA
ABOKATUAK

Ondo pasa jaiak !

Tel.: 943-42 92 27 / 688-61 35 30

Mundaiz bidea, 10, 24A, 20012 Donostia



ONDO PASA JAIETAN!
CACTUS
TABERNA
943-05 41 67
PLAZA BERRI · EGIA



JOSEBA PARRON SAN SEBASTIAN

19:30

Kartelada, Flamenkatik hasita.

19:45

Elektrokela elektrotzaranga, Lastatik hasita.

20:00

Bals dantzaldia, Flamenkan.

Afariak, Trinitate plazan.

20:15

Bertso poteoa, Flamenkatik hasita Parte Zaharrera.

21:55

Kalefaia DJ tematikoa, Lastan.

23:05

Kontzertua, Trinitate plazan: Eira, Saioa eta **TEKNIKARIEN GREBARENGATIK**

Kontzertuak Trinitate plazan:

Eira, Saioa eta **TEKNIKARIEN GREBARENGATIK**

LARUNBATA 15

14:00

Xibaro bazkaria, Flamenkan.

Tiketak: Herria, Zulo Zahar, Kixkurra eta Trikuharri tabernetan salgai.

17:30

Kontzertua, Lastan:

Mexikortxo(R) Band.

19:30

Agerraldi feminista, Flamenkan.

20:30

Kantua ta Zikina, Flamenkan.

23:05

Kontzertuak, Flamenkan:

23:05 - Mirua.

01:00 - Kiliki.

Kontzertua, Trinitate plazan:

La Jodedera.

ERABAGIN

DONOSTIA ABORDATU

LAB
EUSKAL SINDIKALISMO ERALDATZAILEA

The image features a vibrant blue background with a repeating pattern of thick, white, wavy, organic shapes that resemble stylized flames or flowing liquid. These shapes are arranged in a circular, sunburst-like pattern around the central text.

UDALA



«Sagueseko kontzertua berezia izango da; sorpresaren bat ere egongo da»

AITOR ZABALETA ALDUNTZIN

Etzakit taldeko kidea

Etzakit taldeak 23 urteren ondoren ekin dio, berriz ere, oholtza gaineko bideari. Oialumen abiatu zuten itzulera, eta, orduetik, hainbat kontzertu eskaini dituzte Euskal Herrian. Abuztuaren 15ean Donostiako Aste Nagusian ariko dira, Saguesen, eta kontzertu hori baliatu dugu Aitor Zabaleta Alduntzin taldeko kidearekin Etzakiten itzulera eta bizi duten uneaz hitz egiteko.


Garazi Etxaniz Idarreta

2026an oholtza gainera bueltatu zarete, 2003az geroztik, lehen aldiz. Zerk bultzatu zaituzte berriro martxan jartzera?

Harremanetan jarraitu dugu urteotan. Taldeko hiru Esne Beltzako kide ginen, eta bestela ere harremana mantendu dugu urte hauetan guztietan. Tarteka azaltzen zen Etzakiten kontua, zerbait egiteko aukera, baina sekula ez genuen serio hartu. Pasa den urtean, 30 urte bete ziren Etzakit sortu zenetik, eta aitzakia hori hartuta hasi ginen mugitzen. Ez da erraza berriz elkartzea, entse-

OLIYOS
TABERNA JATETXEA

Erregezaintza, 4, Donostia · Tel.: 943-21 49 89





Jende andana bildu zen Iruñeko sanferminetan, Etzakit taldea ikusteko. **ETZAKIT**



«Garai hartakoek eta gaur egungo gazteek batera abesten dituzte kantu batzuk, eta horrek poz handia ematen digu»

guak egitea eta bakoitzaren lanak, familiak eta erritmoak uztartzea, baina, azkenean, adostasun batera iritsi ginen.

Egia esan, ez geneukan asmo zehatzik, baina egia da urtero jasotzen gurela herriren bate-tik dei edo proposamenen bat kontzerturen bat egiteko. Afari

batean hasi ginen hizketan, gero beste batean, eta hortik atera zen Oialumen lehen kontzertu bat egiteko ideia; azkenean, hiru izan zirenak. Hori bai, bi gauza oso argi genituen: lehen kontzertua Oialumen izango zela eta urtarilaren 5ean egingo gurela, Etzakit urtarilaren 5ean hasi eta egun berean bukatu zelako. Azkenean, urtarilaren 2an, 3an eta 5ean jo guren.

Ordutik, kontzertu gehiago egin dituzue.

Oialumeko kontzertuak amaitu bezain pronto, dei pila-pila bat jaso genituen, herri askotatik. Guk ez guren asmorik jarraitze-ko, baina berriz elkartu, hitz egin

eta kontzertu kopuru mugatu bat egitea erabaki guren, hamar in-guru. Ez guren urte osoko kontzertu bira egin nahi, bakoitzak bere lana, familia eta bizimodua dituelako. Horregatik, kopurua mugatu guren, hasieratik.

Dagoeneko jo dugu EHZn — nahiz eta hiru kanturen ondoren eten behar izan guren eguraldia zela eta —, Markinan, Sopelan, Iruñean eta Gasteizen.

olakoa izaten ari da itzulera taldekideentzat? Zer nolakoa izan da publikoaren harrera?

Guretat, oso berezia izaten ari da. Ez soilik Oialumen gertatutakoa, hura izugarria izan zen, baizik eta ondorengo kontzertu guztiak

harte

Antenak. Eraikinetan instalazio digitalak.
Mantenua eta erreparazioak.



Antenak, LTD
eta satellite



Atezain eta bideo
atezain digitalak



Bideo-zaintza

Ondo pasa jaiak!

☎ 943-28 77 42

📍 Zabaleta, 44, 20002 Donostia



«Gazte askok trikiti taldeak, txarangak eta plaza giroko kontzertuak nahi dituzte berriro»

ere bai. Kontzertua bera baino gehiago da: arratsaldeko lauetan elkartu, kafea hartu, furgonetan sartu eta elkarrekin joatea. Horrek oroitzapen asko ekartzen dizkigu. Jendearen aldetik ere oso polita izaten ari da. Garai hartako gazte asko etortzen dira guregana, baina baita oraingo gazteak ere. Gainera, harrituta gaude ikusita abesti batzuk oraindik ere nola funtzionatzen duten. Garai hartakoek eta gaur egungo gazteek batera abesten dituzte kantu batzuk, eta horrek poz handia ematen digu.

2003ko Etzakit eta 2026ko

Etzakit zertan dira desberdinak? Askok aldatu da musika sektorearen panorama?

Taldeari dagokionez, ez dut uste



Etzakit taldea, Iruñeko sanferminetan jotzen. ETZAKIT

asko aldatu garenik. Entseguekin berriro ere hasi ginenean, lehenengoan ez, baina bigarrenetik aurrera elkarri esaten genion: «Orain dela 25 urte zuen soinu bera du honek!». Hainbeste urte elkarrekin jo gabe egon ondoren,

berriz ere soinu bera eta konplizitate bera nabaritu genituen. Egia da urte hauetan guztietan musika mundutik urrundu gabe ibili garela Jon Mari, Xabi, Ander eta ni, eta horrek lagundu du berriz konektatzen.

Ondo pasa jaiak!

Oiartzun



● **Gozotegia:** Ijentea, 2 · Tel.: 943-42 62 09 ● **Lantegia:** Jai Alai, 6 · Tel.: 943-29 09 07

● www.pasteleriaoartzun.com ● obrador@pasteleriaoartzun.com

El Vaskito

ONDO PASA JAIETAN!







Igara bidea, 33 - 20018, Donostia · 943-35 87 78 · info@elvaskito.com

Panorama musikalaria dago-kionez, iruditzen zait, azken urteotan, berriz ere plaza giroko taldeek gora egin dutela. Gazte askok trikiti taldeak, txarangak eta plaza giroko kontzertuak nahi dituzte berriro. Ez da gure garaian izandako boom bera, baina antzeko zerbait sumatzen da. Ikusi besterik ez dago Gozategiren moduko talde batek gaur egun nola betetzen dituen plazak. Horrek esperantza ematen dit. Makro kontzertuak ere hor daude, baina herri giroko festek eta plazek indarra hartu dute berriz.

Itzuleran bizi izan duzuen une berezirik?

Oialumeko azken kontzertua amaitu ondorengo. Tentsio handiko hiru kontzertu izan ziren, urduritasunagatik, hainbeste urte eta gero berriz oholtza gainera igotzea eta jendea gu ikustera etortzea... Kontzertua bukatu, eszenatokitik jaitsi eta sekulako besarkada eman genion elkarri, «listo, pasatu dira

kontzertuak, eta gainera oso ondo joan dira», esango bagenu bezala. Oso hunkigarria izan zen. Iruñeko kontzertua ere berezia izan zen. Gaztelu plazan jotzea oso garrantzitsua zen guretzat, eta han ere antzeko besarkada eman genuen.

Taldeak hasi berria zeneko eta egungo publikoa berdina da?

Kontzertuetan denetik ikusten dugu. Adin guztietako jendea izaten da, nahiz eta gehienak adin batetik gorakoak izan. Hala ere, ez nizuke esango garai hartakoak soilik zirenik, baina Oialumen, esaterako, bai 28 urtetik gorako jende asko zegoela. Gazteak ere etortzen dira, baina nabari da adinaren araberako aldea.

Donostiako Aste Nagusian Saguesen joko duzue.

Bai. Sagues plaza izugarria da. Plaza handia eta oso ona da jotzeko, bertara doan jendea propio joaten delako taldea ikustera; ez da paseoan harrapatzen zaituen leku bat. Horrek tenperatura


hartzeko oso kontzertu ona bihurtzen du. Nik bertan jo izan dut beste proiektu batzuekin, eta sortzen den giroa izugarria da. Gainera, talde gipuzkoarra izanik, berezia da guretzat. Hortaz, kontzertu berezia izango dela uste dut, eta sorpresaren bat ere egongo da.

Zer espero duzue Aste Nagusiko kontzertutik?

Giro berezi eta dantzagarria sortzea. Lehen aipatzen nuen plaza giro hori berriz ere agertzea, jendea elkarrekin kantuan eta dantzian ikustea. Hori nahiko nuke, eta uste dut hala izango dela.

Beste kontzerturik izango duzue?

Irailean beste bi kontzertu izango ditugu, oraindik iragarri ezin ditugunak. Ondoren, printzipioz azkena dena, abenduaren 10ean izango da, Bilboko Kafe Antzokian. Jendea animatuko nuke kontzertuetara etortzera, bai Donostiara, bai ondorengoetara, gutxi izango baitira aurtengo Etzakiten kontzertuak. ●



ONDO PASA FESTETAN!


Delta papeleria

Eskolara itzulerara %15eko deskontua
Abuztuaren 30etik irailaren 12ra
(Motxila, agenda, diseinua eta informatikan izan ezik)

Astelehenerik ostiralera: 09:00 - 19:30
Larunbata: 10:30 - 13:30
Andrestegi, 2 behea - ANTIGUA - Donostia
943-22 38 98 - 663875255 deltapapeleria@gmail.com

[Instagram](https://www.instagram.com/deltapapeleriasdonosti) [Facebook](https://www.facebook.com/deltapapeleriasdonosti) [TikTok](https://www.tiktok.com/@deltapapeleriasdonosti)

[deltapapeleriasdonosti](https://www.deltapapeleriasdonosti.com)



La Mera Mera

[Facebook](https://www.facebook.com/lamerameradonosti) [Instagram](https://www.instagram.com/lamerameradonosti)

[@lamerameradonosti](https://www.instagram.com/lamerameradonosti)

Matia kalea, 38 - Donostia - Tel.: 943 96 85 75



Xabier Cuesta Aguirresarobe, S.L.

Abokatua / Higiezinaren kudeatzailea / Finken administrazioa

Ondo pasa jaiak!

Mandasko Dukea, 38, behea - Donostia - Tel.: 943-27 03 27 - xabier@xabiercuesta.com

Geuria

M E R K A T U A

Boulevard 4, DONOSTIA
(Sarriegi plazatik ere sarrera du)
943 062 694

**MAHALA IZOZKIAK
GEURIA SUKALDEA
KALITATEZKO
EUSKAL ELIKAGAIK**

erosi euskaraz!

Baserrian egindako
arroz esnea.
Earra eongo dek!

mmmmmmmm....

ASTE NAGUSIAN ERE Donostia Kiro**la** da.



**Donostia
Kiro**la****

Udalaren egitaraua

EGUNERO

Egun osoan zehar

Zurriola Street Food, hainbat herrialdetako eskaintza gastronomikoa, kalean kontsumitzeko.

Barrakak, Pasealeku Berrian. Haurrentzako barrakak, Gipuzkoa plazan. Egun merkeak: 8a eta 18a. Zaratarik gabeko egunak: 8a, 13a, 15a eta 18a (16:30-18:30).

09:00-14:00

Euskal Herriko nekazal produktuen XIII. azoka berezia, Loiola kalean. Haurrentzako jolasak egongo dira.

OSTIRALA 7

17:00-20:00

Aste Nagusiko XX. Hondartza Boleibol Txapelketa, Zurriola hondartzan.

LARUNBATA 8

09:00-20:00

Aste Nagusiko XXI. Hondartza Boleibol Txapelketa, Zurriola hondartzan.

14:00

Estropaden zeharkaldia. Aste Nagusiko Porsche Urdaneta Saria badian, Pasealeku

Berrian eta Zurriolan zehar. Irteera: Mollaberria.

18:00

Erraldoiak eta buruhandiak Erdialdean eta Parte Zaharrean. Irteera Larramendi kaletik.

18:15

Goazen kanoikadara! Trinitate plazatik.

18:25

Kanoikadaren erritmoan! Gauferdi eta Joselontxos txarangekin.

18:30

Igeldoko eta Uliako Harriak, Trinitate plazan.

19:00

Festa hasierako kanoikada, Alderdi Ederren.

Joselontxos txaranga Parte Zaharrean. Gauferdi txaranga kanoikadan eta Parte Zaharrean.

IV. Padel Aste Nagusia txapelketa Donostiako Tennis Elkarte Errealean.

19:20

Holi festa Bulebarrean: Anersote DJ-a, Cris Zuloaga eta Lorea Luken Urruzmendi.

20:30

XLIX. Txistulari Alardea, Plaza Berrian.

20:30-22:00

Artie Escolar DJ-a, Erizainen plazan.

22:45

Su Artifizialen Nazioarteko 61. Lehiaketa, Kontxako badian. Pirotecnia Alpujarreña (Granada).

23:30

Zezensuzkoaren entzierroa. Ibilbidea: Miramar, Andia, Hernani eta Bulebar.

23:30-02:00

Kursaal gune zabala. Pop musika, Erizainen plazan: Las Divas.

23:30

Stylo Music Show, dantzaldia Easo plazan.

Frank Blackfield Band, country musika Bulebarreko kioskoan.

23:45

Veintiuno taldea, Tomas Alba plazan.

IGANDEA 9

09:00-20:00

Aste Nagusiko XXI. Hondartza Boleibol Txapelketa, Zurriola hondartzan.

10:30

Guretara. 1920ko hamarkadako paseoa eta bainua Kontxako hondartzan, Los Bebes De La Bulla fanfarrearekin.



ILAZKI

EUSKALTEGIA

HABEk diruz lagundua

HADE  EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

Ondo pasa jaietan!

www.ilazki.eus · Konstituzio plaza, 5 · 943-42 49 10 · ilazki@ilazki.eus

11:00-20:30

Eskulangintza azoka Bulebarrean.

11:00-14:00

Puzgarriak, Gaskonia plazan.

11:00

Aste Nagusiko IX. Legatza saltsa berdean lehiaketa Matia kalean.

11:30-14:30/15:30-20:30

Puzgarriak, Katalunia plazan (Gros).

12:00-14:30/17:00-19:30

Artilezko loreak tailerra (6 urtetik gora)
Maduixa Gorriaren eskutik, Bulebarrean.

12:00

Antigua Band txaranga Antigua auzoan.

12:00-14:30/17:00-19:30

Makramezko tapizak egiteko tailerra (7 urtetik gora), Sare Makramearen eskutik Bulebarrean.

12:00

Kanoatan irteera gidatua Urumea ibaitik, Martuteneko jolas parke zaharraren hondarretaraino.
Irteera: Latsarien plaza.

12:00

Euskal dantza mutxikoak, Bulebarreko kioskoan.

12:30-17:30

Waterpolo I. Txapelketa Mistoa Donostia Hiria Masterra, Nautikoan.

12:45

Donostiako Musika Hamabostaldia. Organo zikloa. Ana Belen Garcia (organoa) eta Iñaki Etxepare (biolontxelo), Iesu elizan (Loiolako Erribera auzoan).

13:00-14:30

Ando DJ-a, Kursaaaleko Erizainen plazan.

16:00

Aste Nagusiko XXXI. Esku pilota txapelketa. Finalaurrekoak, Trinitate plazan.

17:00-20:00

Saharar jaia: Oporrak Bakean programaren 40. urteurrena, Katalunia plazan.

17:30

Zaldi lasterketak. Behorren sari nagusia, Donostiako Hipodromoan.

18:00-20:30

DJ-a Nautikoko terrazan, 1980ko hamarkadatik 2000. urtera bitarteko udetako musika.

18:00

Erraldoiak eta buruhandiak, Antiguan. Irteera Alfontso XIII.a plazatik.

18:30

Bebes de la Bulla fanfarrea, Parte Zaharrean eta Erdialdean.

19:00

IV. Padel Aste Nagusia txapelketa Donostiako Tenis Elkarte Errealean.

19:00-21:30

Arratsaldea Dantzan Tropicana Son orkestrarekin, dantzaldia Kursaaaleko Erizainen plazan.

19:30

San Nicolas De Pollos musika banda (Valladolid) Bulebarreko kioskoan.

20:00

Gero Axular dantza taldea, Plaza Berrian.

20:30

Donostiako Musika Hamabostaldia. Ganbera Musika Zikloa. La Ritirata, San Telmo museoan.

22:45

Su Artifizialen Nazioarteko 61. Lehiaketa, Kontxako badian. Xena Pyrotechnics (Herbehereak).

23:30

Zezensuzkoen entzierroa. Ibilbidea: Miramar, Andia, Hernani eta Bulebarra.

23:30-02:00

DJ gaua Kursaaaleko Erizainen plazan: Aitana Grandes eta Troiti DJ-ak.

23:30

Tarantella Quattro, dantzaldia Easo plazan.

Olgetan erromeria, Bulebarreko kioskoan.

23:45

Nat Simons & Aurora Beltran, Tomas Alba plazan.

ASTELEHENA 10

09:30

Abordatzera! Baltsen muntaketa kaian.

11:00-20:30

Eskulangintza azoka Bulebarrean.

11:00

Ezagutu hiriko aterpe klimatiko naturalak: Aieteko parkea, Cristina Enea Fundazioaren eskutik.

Altxorraren bila. Urumeako garbiketa kanoetan. Irteera: Latsarien plazako ontziralekutik.

12:00-14:30/17:00-19:30

Bakoitzak bere izenarekin fieltro tapiz bat egiteko tailerra (5/6 urtetik gora), Maduixa Gorria tailerraren eskutik, Bulebarrean.

12:00

Aquariumeko Itsas Film Festibala. CIMASUB Urpeko Zinemaren Nazioarteko Zikloa. Sarrera doan, eserlekuak bete arte.

12:30

Bertsolariak, Easo plazan. Parte hartzaileak: Miren Artetxe, Asier Azpiroz, Nerea Ibarzabal, Xabat Illarregi eta Aitor Mendiluze. Gai jartzailea: Ander Aranburu.

13:00-14:30

Ando DJ-a, Kursaaaleko Erizainen plazan.

13:00-16:00

Waterpolo, erakuste partidak, herritarren parte hartzerako irekiak.

15:30-20:30

Puzgarriak, Katalunia plazan (Gros).

16:00

Aste Nagusiko XXXI. Esku pilota txapelketa. Finalaurrekoak, Trinitate plazan.

16:00-19:00

Haurrentzako eskrima Igor Otaegi eskrima maisuaren eskutik, Katalunia plazan.

Egurrezko jokoak Katalunia plazan.

17:00

Abordatzera!

18:00

Erraldoiak eta buruhandiak, Loiolako Erriberan eta Amaran.

Aste Nagusiko IX. Paella Lehiaketa Katalunia plazan.

18:30

Kitadelpare txaranga, Erdialdean eta Parte Zaharrean.

Tximeletak txaranga, Grosen.

19:00

IV. Padel Aste Nagusia txapelketa Donostiako Tennis Elkarte Errealean.

19:00-21:00

Arratsaldea Dantzari Duo Imperial taldearekin, dantzaldia Erizainen plazan.

19:30

Irun Hiria musika banda (Gipuzkoa) Bulebarreko kioskoan.

20:00

Goizaldi dantza taldea, Plaza Berrian.

Donostiako Musika Hamabostaldia. Musika Garaikideko Zikloa. Sigma Project, Tabakaleran (Hall 1).

22:45

Su Artifizialen Nazioarteko 61. Lehiaketa, Kontxako badian. Pirotecnia Tamarit (Valentzia).

23:30

Zezensuzkoen entzierroa. Ibilbidea: Miramar, Andia, Hernani eta Bulebarra.

23:30-02:00

Osto eta Jonylikes DJ-ak, Erizainen plazan.

23:30

Errota Taldie, Alfontso XIII.a plazan.

Cafe Irlandes orkestra, Easo plazan.

Zazu RMB, Bulebarreko kioskoan.

23:45

Sanguijuelas de Guadiana taldea, Tomas Alba plazan.

ASTEARTEA 11

11:00

Barrene pilota jokoa, Trinitate plazan.

Ezagutu hiriko aterpe klimatiko naturalak: Ametzagainako parkea, Cristina Enea Fundazioaren eskutik.

12:00

AIFF Aquariumeko Itsas Film Festibala. Juan Manuel Sotillosen *Haizearen Indarrarekin*.

13:00-14:30

Ando DJ-a, Kursaalera Erizainen plazan.

14:00-19:00

U16 eta U14 mistoko II. Donostia Hiria Waterpolo Txapelketa, Nautikoan.

15:30-20:30

Puzgarriak, Katalunia plazan.

16:00-19:00

Jolas kooperatiboak eta asmamen jokoak Katalunia plazan.

17:30

Haurrentzako Bizikleta Festa, Bulebarrean.

18:00

Aste Nagusiko I. Kokotxak Pil-pilean Lehiaketa, Zuloaga plazan.

Erraldoiak eta buruhandiak, Erdialdean, Larramendi kaletik abiatuta.

18:30

Joselontxos txaranga, Grosen. Pasai txaranga, Erdialdean.

19:00

78. Antiguako Pilota Txapelketa, Antiguako frontoian.

IV. Padel Aste Nagusia txapelketa Donostiako Tennis Elkarte Errealean.

19:00-21:30

Arratsaldea Dantzari Duo Estallido taldearekin, dantzaldia Erizainen plazan.

19:15

Donostia Hiria pilota txapelketa, Atano III.a frontoian.

19:30

Twomuch Circus taldeak *Double Bill* aurkeztuko du, zirku eta umore ikuskizuna, Katalunia plazan.

Andropause Bande (Frantzia) Bulebarreko kioskoan.

Donostiako Musika Hamabostaldia. Tabakalera Dantzari. Ion Munduate Tabakaleran (patioa).

19:30-20:30

Disko festa DJ-ekin Nautikoko terrazan.

20:00

Eskola dantza taldea, Plaza Berrian.

22:45

Su Artifizialen Nazioarteko 61. Lehiaketa, Kontxako badian. Phoenix Fireworks (Erresuma Batua).

23:30

Zezensuzkoen entzierroa. Ibilbidea: Miramar, Andia, Hernani eta Bulebarra.

23:30-02:00

Kursaal gune zabala. Urban 13, Erizainen plazan.

23:30

Black Smoke, rock musika. Alfontso XIII.a plazan.

Trio Tal Kual, dantzaldia. Easo plazan.

Treverb taldea, Bulebarreko kioskoan.

23:45

La Orquesta Mondragon, Tomas Alba plazan.

ASTEAZKENA 12

11:00-20:30

Eskulangintza azoka, Bulebarrean.

11:00

Ezagutu hiriko aterpe klimatiko naturalak: Urgull mendia, Cristina Enea Fundazioaren eskutik.

12:00-14:30/17:00-19:30

Poltsatxo aromatikoak josteko tailerra, Hazi eta Heziren eskutik, Bulebarrean.

12:00

Aquariumeko Itsas Film Festibala. Xabier Mina Ederra eta Isaias Cruzen *Kantauri*.

Donostiako gaiteroak, Parte Zaharrean.

12:30

Bertsolariak, Easo plazan: Amets Arzallus, Nerea Elustondo, Aitor Etxeberriazarraga eta Maialen Lujanbio. Gai jartzailea: Estitxu Fernandez.

13:00-14:30

Ando DJ-a, Kursaaaleko Erizainen plazan.

15:00-19:00

4x4 kuadrillako waterpolo txapelketa Nautikoan (parte hartze librea).

15:30-20:30

Puzgarriak, Katalunia plazan (Gros).

16:00-19:00

Eklipsea: lortu zure astronauta pasaporte, Katalunia plazan.

18:00

Erraldoiak eta buruhandiak, Gros auzoan. Irteera: Abuztuaren 31 kaletik.

18:30

Oria txaranga, Parte Zaharrean. Deiadar txaranga, Erdialdean.

19:00

78. Antiguako Pilota Txapelketa, Antiguako frontoian.

IV. Padel Aste Nagusia txapelketa Donostiako Tenis Elkarte Errealean.

19:00-21:00

Eklipse jaia ETBren eskutik, Tomas Alba plazan (Sagues).

19:00-21:30

Arratsaldea Dantzan, Tsunami orkestrarekin, dantzaldia Erizainen plazan.

19:15

Donostia Hiria pilota txapelketa, Atano III.a frontoian.

19:30-20:30

Haurrentzako disko festa DJ-ekin Nautikoko terrazan.

19:30

Trintxerpe musika banda Illunbe (Gipuzkoa) Bulebarreko kioskoan.

XXXI. Egiako Nazioarteko Eskubaloi Txapelketa, Egiako kiroldegian. Gizonak: Logroño-Torrelavega.

20:00

Trebeska dantza taldea, Plaza Berrian.

Donostiako Hamabostaldia. Arriaga Harrigarria Euskadiko Orkestrarekin eta Easo Abesbatzarekin. Zuzendaria: Juanjo Mena, Viktoria Eugenia antzokian.

22:45

Su Artifizialen Nazioarteko 61. Lehiaketa, Kontxako badian. Pirotecnia Valenciana.

Mundua, bagoaz.

BANOOOA GO!

**Irentsi mundua
LABORAL Kutxaren GO! txartelarekin.**

EZ du komisiorik Estatu osoko 10.000 kutxazain baino gehiagotan*.

EZ du komisiorik, LABORAL Kutxaren aldetik, atzerriko kutxazainetan**.

EZ du komisiorik dibisa aldatzeagatik.

EZ DU KOMISIORIK, EZ HEMEN*, EZ ATZERRIAN**

*Zure probintzian dirua komisiorik gabe ateratzeko, LABORAL Kutxaren kutxazain-sarea duzu; zure probintziaz kanpo, berriz, entitate hauetako kutxazainak erabil ditzakezu: Caja Rural, Cajamar, Bankinter, Caja de Ingenieros, Cashzone, Deutsche Bank, Arquia Banca, Euro Automatic Cash eta Euronet WorldWide.
**LABORAL Kutxak ez du komisiorik kobratuko atzerriko kutxazainetan. Kutxazainaren jabeak komisio bat ezar lezake kutxazaina erabiltzeagatik (LABORAL Kutxak ez).

Abantaila horietaz baliatzeko, LABORAL Kutxaren bezero izan behar duzu. 14 eta 29 urte bitartekoa (biak baino). Horrez gain, 18 urtetik aurrera nahitaezkoa izango da entitate honetan Bizum aplikatuta izatea.

LABORAL
kutxa

23:30

Zezensuzkoen entzierroa. Ibilbidea: Miramar, Andia, Hernani eta Bulebar.

23:30-02:00

Kursaal gune zabala. Bull DJ-a, Erizainen plazan.

23:30

A Toda Madre, Alfontso XIII.a plazan.

Agirren taldea, Easo plazan.

Dicri Tango DJ eta Javier Setti, Bulebarreko kioskoan.

23:45

Malmö 040, Tomas Alba plazan (Sagues).

OSTEGUNA 13

11:00

Barrene pilota jokoa, Trinitate plazan.

Ezagutu hiriko aterpe klimatiko naturalak: Gladys Enea parkea, Cristina Enea Fundazioaren eskutik.

Nordic Walking zeharkaldia. Irteera eta helmuga Katalunia plazan.

12:00-14:00/16:00-19:00

Ur parke puzgarria, Kursaaleko Zurriola terrazan.

12:00

Ez dira pasako. Urumeako garbiketa kanoetan. Irteera: Latsarien plazako ontziralekutik.

Aquariumeko Itsas Film Festibala. Arthur Bourbonen *We The Surfers*.

13:00-14:30

Ando DJ-a, Kursaaleko Erizainen plazan.

15:30-20:30

Puzgarriak, Katalunia plazan.

16:00-19:00

Zirku eskola handia: malabare eta akrobazia jolasak eta tailerrak Katalunia plazan.

17:00-20:00

Puzgarriak Aitzol parkean.

Aste Nagusiko III. Txipiroiak Bere Tintan Lehiaketa Aitzol parkean.

18:00

Erraldoiak eta buruhandiak. Parte Zaharrear eta Kontxa pasealekuan. Abuztuaren 31 kaletik abiatuko dira.

18:30

Gauerd txaranga, Parte Zaharrear eta Erdialdean. Pasai txaranga, Gros eta Saguesen.

19:00

IV. Padel Aste Nagusia txapelketa Donostiako Tennis Elkarte Errealean.

19:30

Firulete antzerki taldeak *Ovidio bidaiaria* aurkeztuko du, antzerki musikala txotxongiloekin, Katalunia plazan.

Valtierrako udal musika banda (Nafarroa) Bulebarreko kioskoan.

XXXI. Egiako Nazioarteko Eskubaloi txapelketa, Egiako kiroldegian. Gizonak: Torrelavega-Union Fenix Toulouse.

Donostiako Hamabostaldia. Tabakalera Dantzan. Paula Quintana, Tabakaleran.

20:00

Donostiako Musika Hamabostaldia. Grigory Sokolov pianista Kursaal auditorioan.

Puro Relajo, mariatxiak Plaza Berrian.

20:30-22:00

Artie Escolar DJ-a, Erizainen plazan.

22:45

Su Artifizialen Nazioarteko 61. Lehiaketa, Kontxako badian. Gianni Vaccalluzzo (Italia).

23:30

Zezensuzkoen entzierroa. Ibilbidea: Miramar, Andia, Hernani, Bulebarra.

Andoni, Magia en Zapatillas magoak aurkezten du *DesOrekatua* magia, Alfontso XIII.a plazan.

Azabache orkestra, dantzaldia Easo plazan.

Folk Rippers, Bulebarreko kioskoan.

23:45

Süne, Tomas Alba plazan.

OSTIRALA 14

11:00-20:30

Eskulangintza azoka, Bulebarrean.

11:00

Ezagutu hiriko aterpe klimatiko naturalak: Ulia mendia, Cristina Enea Fundazioaren eskutik.

11:30-14:30/15:30-20:30

Puzgarriak, Katalunia plazan.

12:00-14:00/16:00-19:00

Ur parke puzgarria uretako txirrista erraldoiarekin, Kursaaleko Zurriola terrazan.

12:00-14:30/17:00-19:30

Egur tailak egiteko tailerra, Bulebarrean.

12:00

AIFF Aquariumeko Itsas Film Festibala. Leire Garmendiaren *Glassy*.

12:30

Bertsolariak, Easo plazan. Parte hartzaileak: Peru Aiertza, Andoni Egaña, Irantzu Idoate, Sustrai Kolina eta Alaia Martin. Gai jartzailea: Unai Elizasu.

13:00-14:30

Ando DJ-a, Kursaaleko Erizainen plazan.

16:00-19:00

Aste Nagusiko XXX. Arrantza Lehiaketa, Urumea ibaian.

16:00

Aste Nagusiko XXXI. Esku Pilota Txapelketa: finalak, Trinitate plazan.

17:00-22:30

V. Dantz Point Aste Nagusia, DJ-ak Benartegi baserriaren aurrean.

17:00-20:00

Senior mailako gizonezko eta emakumezko Donostia Hiria V. Beach Polo txapelketa.

17:00

Kanoatan irteera musikatua Iker Laurobarekin. Irteera: Latsarien plazako ontziralekutik.

Donostiako Musika Hamabostaldia. Tabakalera Dantzan. Lorena Nogal Tabakaleran (plazan).

18:00

Etxeokekin Sukaldean V. Gastronomía Lehiaketa, Elkano kalean.

Erraldoiak eta buruhandiak Gros auzoan. Abuztuaren 31 kaletik abiatuko dira.

18:30

Tximeletak txaranga, Amara Berrin.

Taupada batukada, Erdialdean eta Kursaaalean.

19:00

Aztikeriak, Tor eta Txoborro magoekin, Aitzol parkean.

Donostiako Musika Hamabostaldia. Tabakalera Dantzan. Lorena Nogal Tabakaleran (plazan).

IV. Padel Aste Nagusia txapelketa Donostiako Tenis Elkarte Errealean.

19:30

Araiako musika banda (Araba), Bulebarreko kioskoan.

XXXI. Egiako Nazioarteko Eskubaloi txapelketa, Egiako kiroldegian. Gizonak: Logroño-Union Fenix Toulouse.

Salbe Nagusia, Koruko Andra Mariaren Basilikan, Donostiako Orfeoiaekin.

20:00

Aba Taano, ahots boskotea Plaza Berrian.

Donostiako Musika Hamabostaldia. Ganbera Musika Zikloa. Quatuor Bela, Tabakaleran (sala 1).

20:30-22:00

Artie Escolar DJ-a, Erizainen plazan.

21:00

Donostia Hiria pilota txapelketa, Atano III.a frontoian.

22:45

Su Artifizialen Nazioarteko 61. Lehiaketa, Kontxako badian. Gironina (Valentzia).

23:30

Zezensuzkoen entzierroa. Ibilbidea: Miramar, Andia, Hernani eta Bulebar.

Kitadelpare txaranga, Parte Zaharrean.

Euroshow orkestra, dantzaldia Easo plazan.

Otxentas, 1980ko hamarkadako abestiak, Bulebarreko kioskoan.

23:30-02:00

Kursaal gune zabala. DJ gaua, Erizainen plazan. Marmitako Trap Banda eta Nrea DJ-a.

23:45

Lia Kali, Tomas Alba plazan (Sagues).

Festara! Amaran, Antiguan eta Parte Zaharrean.



**ORDIZIA
TABERNA**

San Lorenzo kalea, 6
20003-Alde Zaharra-Donostia
tel.: 943-42 24 24
www.ordiziataverna.com



Ondo pasa
jaiak!

OGITARTEKOAK ETA PINTXO BEROAK

www.eskulaneneltxea.com

Eskulanen Eltxea



ONDO PASA JAietan!

Sarriegi plaza, 10 - 20003 Donostia - Tel.: 943-43 65 71

ceinpro

Fp | Titulazio ofizialak! | **ceinpro.es**

 **DISEINU GRAFIKOA**
Goi&Erdi-Maila

 **3D ANIMAZIOA**
Goi-Maila

 **MARKETING DIGITALA**
Máster FP

 **ERREALITATE BIRTUALA**
Máster FP

Ezohiko matrikula · Irailaren 1etik aurrera

LARUNBATA 15

10:30

Piraguismoa. Zeharkaldia Pasealeku Berritik eta Zurriolatik Pasaiko portuko sarreraino. Irteera eta helmuga Nautikoko ontziralekuan.

10:30-20:00

Arte azoka, Bulebarrean.

11:00

Pasealeku Berriko LVI. Igerialdia.

Bizikleta eta patinetan jaigiro martxa. Irteera eta helmuga Katalunia plazan.

Aste Nagusiko XIX. Marmitako Lehiaketa, Elkano kalean.

11:30-14:30/15:30-20:30

Puzgarriak, Katalunia plazan.

11:30

Arkaitz Añorgako dantzariak, ezpata dantza eta brokel dantza, foklorea Parte Zaharreko kaleetan. Irteera: kaitik. 12:00etan emanaldia Plaza Berrian.

12:00

Aquariumeko Itsas Film Festibala. Josep Maria Castellviren *Naufragis, Bussos eta Homes Igela*.

12:30

Bertsolariak Easo plazan. Billintx 150 urte. Parte hartzaileak: Onintza Enbeita, Beñat Gaztelumendi, Joanes Illarregi eta Maddi Ane Txoperena. Gai jartzailea: Manex Mujika.

12:00-14:00/16:00-19:00

Uretako txirrista erraldoia eta ur parke puzgarria, Kursaaaleko Zurriola terrazatik.

13:00-14:30

Ando DJ-a, Kursaaaleko Erizainen plazan.

16:00-19:00

Haurrentzako eskrima, Igor Otaegi eskrima maisuaren eskutik, Katalunia plazan.

17:00-20:00

Senior mailako gizonezko eta emakumezko Donostia Hiria V. Beach Polo txapelketa. Finalak eta sailkatutako hirugarrenen arteko partida mistoa.

17:15

Zaldi lasterketak Donostiako Hipodromoan.

17:30

Erraldoiak eta buruhandiak, Abuztuaren 31 kaletik abiatuta.

18:00

Sagardoaren bidea. Kanoatan irteera gidatua Urumea ibaitik. Irteera: Latsarien plazako ontziralekutik.

18:30

Los Bebes de la Bulla fanfarrea, Erdialdean.

19:00

IV. Padel Aste Nagusia txapelketa Donostiako Tennis Elkarte Errealean.

19:30

Urrezko Kopa. Aizkolariak Trinitate plazan. Parte hartzaileak: Julen Alberdi (Txikia IV), Julen Gabirondo, Hodei Ezpeleta, Mikel Larrañaga eta Iker Vicente.

Tutik Clowns taldeak *Ekilikua* aurkeztuko du, Gari, Montxo eta Joselontxo pailazoen 30. urteurrena ospatzeko ikuskizuna Katalunia plazan.

Voces Navarras (Nafarroa), jotak Bulebarreko kioskoan.

20:00

Alurr dantza taldea *Hamaikua* ikuskizunarekin, folklorea Plaza Berrian.

Agur Erraldoia. Erraldoi eta buruhandien konpartsaren agurra.

20:30-22:00

Artie Escolar DJ-a, Erizainen plazan.

22:45

Su artifizialak. Amaierako ikuskizun piromusikala, *Valecea Piroteknia (Araba), 150 urteko historia*, Kontxako badian.

23:30

Zezensuzkoen entzierroa. Ibilbidea: Miramar, Andia, Hernani eta Bulebarra.

Joselontxos txaranga, Parte Zaharretik.

Agur Asteari Plazan Berrian, Union Artesanarekin.

23:30-02:00

Kursaal gun e zabala. Aqui Te Pillo Aqui Temazo, pop-rock musika Kursaaaleko Erizainen plazan.

23:45

Etzakit taldea, Tomas Alba plazan.

Boutique Erótica
La Gata con Botas



Karmelo Etxegarai, 6
Donostia - Antigua
943-31 02 70
638-84 77 89
www.lagataconbotas.es

FISIOTERAPIA
ERREHABILITAZIOA **EGFISIOS** REHABILITACIÓN

Ibon Etxeberria



ONDO PASA JAIETAN!

Errehabilitazio eta fisioterapia kontsultategia:
☎ 722-27 65 01 - Zubietta, 11, behea
20007 Donostia

ERAKUSKETA



Modernitatea marraztu 1864–1968

Marrazkiak Fundación Mapfre eta
San Telmo Museoaren bildumetan

2026.06.20

2026.09.27

SAN TELMO
MUSEOA

www.santelmomuseoa.eus

Egon Schiele *Schlafendes Mädchen* [Neskatarra lotan], 1909

ANTOLATZAILEAK

STM
San Telmo Museoa



DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN



donostia
kultura

Fundación
mapfre

ERAKUNDE BABESLEAK



GIPUZKOA
Kultura

Festetan ere aske! SEXU-INDARKERIA SEXU-STARRIK EZ!

ezezetzda.eus

#noesno
#festetanereaske

hariberria

SEXU-INDARKERIARI
ARRETA INTEGRALA



DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN

Berdintasuna
Igualdad



Bulebarrean
Abuztuaren
8tik 15ra

